

DIRU LAGUNTZA ESKAERA

“La Otra Mirada” elkarteakurkezten du

Senegaleko SARE BIROU herriraenergiaeramateko



SARRERA

Nor gara?

“La OtraMirada” Elkarte humanitarioa ilusioz eta besteen alde zerbait egiteko nahiaz jaio zen. Berau osatzen dugun pertsonok gure denboraren zati bat ematen dugu kaltetuenen baldintzak hobetzeko ahaleaginean.

Egun, dozena bat kide aktibok osatzen dugu, egoitza Durangon (Bizkaia) dugula, eta kolaborazio egonkorrak ditugu Mongolian eta Senegalen.

Zein da gure helburua?

Haur kaltetuei laguntzea, euren bizimoduak eta komunitateak hobetuta; garrantzi berezia ematen diogu hezkuntzari eta, ondorioz, komunitate horietako enpleguaren sorkuntzari.

Zein izan da gure ibilbidea?

2011tik, elkarte sortu zenetik, taldean dihardugu lanean gure xedeak betetzeko.

2012an, Nalaihkeko (Mongolia) bi neskatilari laguntzen hasi ginen, Nenda eta Otgo ahizpei, Osteogenesi Inperfektua (Kristalezko Hezurak) baitute. Ospitalera eraman genituen diagnosia egin ziezaieten, une horretara arte etxean egoten baitziren inolako arreta medikorik jaso gabe.

2013an, neskato biei laguntzen jarraitu genuen, tratamendu medikoak eta elikadura-osagarriak ordainduz. Horrez gain, etxebizitza bat (Domo) eraikitzen hasi ginen. Haurtzaindegi bat antolatu genuen desgaitasuna duten haurrentzat eta EHUKo hainbat boluntario (medikuntza-ikasleak) izan ziren gurekin.

2014an umeen familiarentzat egin dugun etxearen amaiera eta bai janariak bai bitaminak ordaintzen jarraitzen dugu



Otgo eta Nendaahizpak



Nalaihkeneraikidugundomoa.



Nalaihkoudaletxeak Mongolian gureelkarteakegindakolanari sari bat emanzion.

2015an NalaihkoumeelbarrituenGurasoenElkarteakeskatuondoren hospital zahar bat berrituduguelbarrituentzakoeGUNekoarretazentro bat bihurtuz.



Zentroaberriztubainolehen.



Honahemenemaitza.



Barrukaldealanakeginbainolehen.



Erabiltzendutenbitartean

Maiatzan Senegaler aera mateko eskola materiala bilketa egingenuen, Amorebieta, Lauaxeta eta Matienari esker, 27 kutxabiltzealortugenuen, boligrafoak, klarionak, kuadernoak, hamabost ordenagailu eta lau imprimagailu lortu genituen eta dagoeneko erabil dezakete.



Ordenagailuak martxan jarrita.



Materiala heldu zen eguna.

Gureinguruan ere gelditzen da laguntza, JAED(Durango)eta GurutzeGorria (Amorebieta) elkarteeijanariarenbiltzenlagundudiegu.



SARE BIROU herrixka

2012. urtetik, elkarteko zenbait kidek harremana dute Senegalgo hegoaldeko norbanako eta entitateekin, eta ondo ezagutzen ditugu hango gabeziak eta eremu horretako lagunen egoera eta hezkuntza hobetzeko ahaleginak.

2012an, SennySabaly Fundazioaren sortzaileetako bat ezagutu genuen: aipatu herrixkan egiten du behar neskatilak eskolatzeko, emakumeen genitalen mutilazioa erauzteko, etab.

2014an, Senegalera itzuli ginen, baina zehazkiago Sare Biroura (Kolda), eta bertan eremu horretako beharren berri eman ziguten. Hausnarketa egin ondoren, egoki iritzi genion euren egungo eta etorkizuneko proiektuetan laguntzeari.

Herrixkan, 300 biztanle bizi dira, 50 etxe/txabolatan banatuta. Era berean, eskola-eraikin bat dago, 45 m²-ko 2 gelatan banatuta, hala nola 50 m²-ko eraikin komunitario bat bilerak egiteko eta gatazkak konpontzeko.



SareBirouherrikoetxebizitzak



SareBirouherrikoeskola



2014urteko gurebidaian, eskolarako eta osasunarlokomaterialahelarazten.



2014an SareBirouherrianeskolarakomaterialabanatzen



SareBirouKoldadistritoandago

PROIEKTUA

“La otramirada” elkartetik, laguntza eman nahi dugu Sare Birou herrixkak oinarrizko argindarra izan dezan, bertako bizilagunek funtsezko zerbitzuak jaso ahal izateko, bereziki hezkuntzari dagokionez:

- 1 2 argi-ordu iluntze ostean etxe bakoitzean (7-10 W etxeko).
- 2 2 argi-ordu iluntze ostean eskola-eraikinean, kontsumo txikiko ordenagailu bat 4 orduz erabiltzeko aukerarekin batera.
- 3 2 argi-ordu iluntze ostean eraikin komunitarioan, kontsumo txikiko ordenagailu bat 2 orduz erabiltzeko eta sakelako telefono batzuk kargatzeko aukerarekin batera.

Atalen arabera, ondokoak dira beharrak eta aurrekontuak:

ETXEAK

2 etxetarako: oinarrizko argiztapen-sorta (ikus eranskina) eta kontsumo txikiko bonbilla bana etxe bakoitzerako. Gutxi gorabeherako aurrekontua 290 € 2 etxetarako, hau da, 50 etxetarako, guztira: **7.250 €**.

ESKOLA

20 W-eko 6 led hodi (3 “ikasgela” bakoitzerako) eguzki-sorta batekin batera, ondokoak barne: kargagailua/alderantzizkagailua (esaterako, telebista, ordenagailua edo haizagailua konektatu ahal izateko) eta bateria bat. Halaber, 10 eguzki-linternako sorta, umeeek segurtasunez ikus dezaten: 150 €.
180 €-ko aurrekontua led hodietan gehi 1.300 € sistema (sortak berak dakartzanez gain, lanabes txikiren bat eta kable eta etengailu gehiago gehitu beharko dira). Eskolarako aurrekontua, guztira: **1.585 €**.

LOKAL KOMUNITARIOA

Beharrak, funtsean, eskolako berak dira; izan ere, ez dute erabiliko ordenagailua, baina bai telebista eta haizagailua. Aurrekontua: **1.480 €**.

Beraz, Sare Birou herrixka oinarrizko energiaz hornitzeko beharrezko aurrekontua, guztira, **10.315 €**-koa da.

La otramirada elkartean hainbat jarduera egiten ari gara (ikus gure webgunea: <http://laotramirada.info/>) ahal dugun neurrian aholkularitza profesionala eta beharrezko materialen erosketa osatuz joateko, hala nola horien garraioa eta helmugako ezarpena kudeatzeko eta, bestea bezain garrantzitsua dena, **bertako lagunei prestakuntza emateko** bitarteko horiek ezartzen eta mantentzen ikas dezaten.

Era berean, ikuspuntu ekonomikotik aurreikusten dugu guk geuk 3.000 €-ko finantzazioa lortuko dugula proiektu honetarako, beraz, aurrekontuaren gainerakoa osatzeko beharrezko laguntza eskatzen dugu.

Emandako laguntza aitortzeko, elkarteak ondoko konpromisoak hartzen ditu:

- Jasotako laguntzari elkarteak helburu honetarako eskuraturiko dirua batuta bil dezakegun materialaren erosketa, bidalketa eta ezarpena kudeatu.
- Ezarritako materiala behar bezala mantentzeko, bertako lagunei prestakuntza eman.
- Proiektua bukatutakoan, txostena idatzi eta erakunde laguntzaileari kopia bat bidali.
- Eskolan eta etxe komunitarioan erakunde laguntzailearen logotipo handiak ezarri ongilea etengabe egon dadin ikusgai.

Adeitasunez

Jose Luis Salas Godino
La Otra Mirada elkartekopresidentea

ANEXO

Descripción de materiales incluidos en el presente proyecto.

Bombillas de bajo consumo para viviendas: 7W, 12v.
10€/unidad



Tubo led 20W. Para escuela y edificio comunitario: 30€/unidad



Kit iluminación básica 260,15€/unidad



Linterna de carga solar para traslados nocturnos.



USB



SolarEnergy

Pasa el ratón por encima de la imagen para ampliarla

Linterna faro foco proyector LED que funciona con energía solar, para ir de camping deporte aventura aire libre con USB y batería recargable mws1098/ROJ (rojo)

de **MWS**

★★★★☆ 5 opiniones de clientes

Precio: **EUR 10,50**

Precio final del producto

En stock.

Vendido y enviado por **Media Wave Store ES.**

Entrega estimada 6 - 10 nov. si eliges Entrega estándar durante la tramitación del pedido. [Ver detalles](#)

Color: **Rojo**



Kit solar para vivienda aislada con inversor y batería: 1.276€/sistema incluyendo 3 placas fotovoltaicas, batería, inversor, conectores e instrucciones de montaje.



Los link de los que se han obtenido los productos y referencias apuntadas en este informe son los siguientes:

<https://autosolar.es/>

http://www.merkasol.com/epages/62387086.sf/es_ES/?ObjectPath=/Shops/62387086/Products/aisla012

https://autosolar.es/kits-solares/kit-solar-aislada/kit-solar-fotovoltaico-aislada-700w-12v-2250wh-d%C3%ADa_precio

http://www.merkasol.com/epages/62387086.sf/es_ES/?ObjectPath=/Shops/62387086/Products/aisla012

Aunque hay productos similares en muchos sitios similares.